

Retrato De Una Alcohólica. Billete Sin Retorno (Ticket For Not Return). 1979

J.B.G.A. 106 min.

Bera, edertasun aparteko emakumea, duintasun klasiko eta proportzio Raphaeldar harmonikoduna. Medea, Madonna, Beatrice, Ifigenia, Aspasia izateko jaioa. Neguko egun eguzkitsu batean, La Rotondatik joatea erabakiko du...

FEMINISTALDIA. IX. Kultura Feminista Jaialdiarekin

kolaborazioan.

<http://feministaldia.org/>

Antzoki Zaharra/ Teatro Principal: Kale Nagusia, 3

(Donostia-San Sebastian)

Osteguna, Abenduak 18. 19:00 retan.

Madame X, soberana absoluta (Madame X - Eine absolute Herrscherin,). 1977

J.B.G.A. 141 min.

Madame X, zorrotza eta edertasun errukigabekoa, eta koro-rik gabeko erregina krudela, Txinatar Itsasoaren subiranoa, "urree-maitasuna-abentura" promesten du beraien bizi eroso eta segurua- guztiz aspergarria- aldatzeko prest dagoen emakume orori. Trukean, arrisku eta egonezinez betea dagoen mundua eskaintzen die, maitasunez eta abenturaz beterikoa.

Okela Sormen Lantegiarekin elkarlanean.

www.okela.org

San Francisco 11, behe (Bilbo)

Igandea, Urtarrilak 11. 18:30retan

Laocnte & Hijos. Historia de la metamorfosis de Esmeralda del Río (Laokoon & Söhne. Die Verwandlungsgeschichte der Esmeralda del Río.) 1972/1973

J.B.G.A. 50 min.

Esmeralda del Río, Olimpia Vincitorren alarguna haragituz, bere iraganaren bila abiatzen da. Linda MacNamararen izenpean, patinatzaile gisa lortzen du arrakasta Kakalia Katzen paraxutistari dolu baten irabazi ondoren. Tristan Tzara, Laura Molloyren erritualetan azaltzen da eta Laokonte & Semeak deituriko zirko ibiltariaren zuzendari bihurtzen da.

Merienda Zinemarekin elkarlanean

<https://www.facebook.com/merienda.zinema>

Hernani 4, 4. Ezk.(Donostia- San Sebastian)

Larunbata, Urtarrilak 24. 19:00retan

The Korean Wedding Chest. 2008

J.B.G.A. 82 min.

2007an Koreatik bidalitako paketea jaso nuenean, ezin izango nuen inoiz imajinatu, handik gutxira filmatu nuen THE KOREAN WEDDING CHEST pelikula inspiratuko zuten edukien mirari kutxa irekitzen ari nintzela. Kontu handiz enpaketatu, bete eta itxitako egurrezko kutxa hura, tradizio ohoretsuen legeak jarraiki bazegoen mihizatua ere (edo agian horri esker), Korear gizarte garaikidearen perspektiba berezi bat eskeintzen zuen. Honek inspiratu ninduen erritual berri eta zaharrak aztertzeraz, berriak zer duen zahartik eta zaharrak zer duen berritik determinatu ahal izateko. Edonon eraikitzen ari diren mega-hirien fenomeno harrigarria eta hauetan bizi den gizarte kontraesankorra ekilibrio ariketa moduan ulertzen duen ipuin gaurkotua da hau. Bon voyage orainera!

Bilbaoartekin elkarlanean

<http://bilbaoarte.org/?lang=eu>

Urazurrutia 32 (Bilbo)

Ostirala, Otsailak 6, 19:00etan

Prater. 2007

J.B.G.A. 104 min.

Vienako Prater jolas parke eta desio makina bat da. Ez dago bertatik eskapu egin ahal izan duen asmakizun mekaniko ezta ideia edo sentsazio berritailerik. Ulrike Ottingerren pelikulako kontu kontalari ezberdinek, sentsazio ugariko espazio hau transformatzen dute ikuskizun zine garaikide batean. Prateraren historia, hasieretatik gaur egun arte, bertako protagonistek edota dokumentatzaileen eskutik iritsiko zaigu. Pelikulak, Prateraren irudi zinematikoak, azoketako salerosleei elkarrizketak, Austriako edota kanpotarren aipuak, pelikula zatiak, argazkiak eta dokumentazio material grafikoak biltzen ditu bere baitan. Prateraren esanahia, berrikuntza teknologikorako espazio zein kultura bitartekari moduan, Elfriede Jelinek, Josef von Sternberg, Erich Kästner eta Elias Canettiren testuetan ikusi dezakegu islaturik, baita historikoki berari erlazionaturik egon izan den musikan ere.


Kaxilda

<http://www.kaxilda.net/>

Arroka kalea 2 (Donostia-San sebastian)

Osteguna, Otsailak 19, 19:00etan.

EUS



Superbia Ulrike Ottingerren 8 film

PROGRAMA

Ziklo honek, Ulrike Ottingerren 8 film du izena baina berez, bederatzi saio dira, edo hamar. Hamalau pelikula dira edo hamabost, edo hamasei Juana de Arco hartuko bagenuke kontutan, Mongoliarra. Pelikula bakarra da eta hogei-mila-edo-zazpi-miloi pelikula dira ere. Bidai honetan, zaozer berezia aurkituko dugu, errepikaezina, edota ez dugu ezer ere ez aurkituko. Baina bilatu egingo dugu. Jango dugu. Hitz egingo dugu, eta seguraski barre egin. Nahikoa.

La imagen de Dorian Gray en la prensa amarilla (Dorian Gray im Spiegel der Boulevardpresse). 1981

J.B.G.A. 150 min

Mabuse, partzuergo batetako zuzendariak, bere enpresaren zabalkunderako proiektu bat dauka esku artean: “Gure partzuegoak, gure ideien arabera moldatuko dugun gizon bat sortuko du eta guk nahi dugun erara gidatuko dugu. Dorian Gray: gaztea, aberatsa, ederra da. Sortu, seduzitu, eta suntsitu egingo dugu.”

Puerta espazioarekin kolaborazioan

<https://espaciopuerta.wordpress.com/>

Zabalbide 17, behea ezk. (Bilbo)

Ostirala, Martxoak 6. 20:00etan

KORTO SORTA BAT:

Still Moving. 2009. Dialogorik gabe. 27 min

Urrun eta gertu dagoen leku batean, gauzak, memoriaren mesedederako bizi dira eta esanahiak, gizakiek emandako dizkiete. Nere objektu artxiboa, nere memoriaren artxiboaren berdina da, ez gutxiago. Batak, bestea animatzen du eta beti ezusteko irudi eta ideiak ekoizten dituzte. Interkonesio mugagabeen pentsatzearen jokoa, norbaitek begiratuko balu bezela da, forma hartuko balute bezala.

Ester – Ein Purimspiel. 2002. J.B.G.A. 31 min

György Konradek kontaturiko eta Europa erdialde eta hegoekialdeko herrialdeetako etorkinek interpretaturiko Purimen eszenifikazio bat da, Berlinen kokatzen dena.

“Judutarrek, etsaiekiko bake itunaz gozatu ahal izan zuten egunen eta atsekabea alaitasunean bihurtu zen hilabete hartako, dolua festa eguna bihurtu zeneko” relatua da. Beste herrialde batetara bidaiatzeaz ari den parabola eta zortea eta zorigaitzari buruzko maskarada dibertigarria.

The Specimen. 2002. J.B.G.A. 18 min

“Eta gabinetetara”, museoko zuzendariak dio, “paregabea den zeozer aurkituko duzu; izatez, URSS osoan bere-espezian-paregabea-den-zeozer: filisteardar baten espezimena, hemeretzigarren-edo-bost urtekoa”.

Iraultza aurretik, filisteardarra- estatus altuko funtzionario zarista bat- istripuz atxilotua izan zenean, amets sakon eta letargikoan erori zen. 20 urte beranduago, esnatu eta bere buru aurkitzen du hasieretako Sovietar Batasun, post-iraultzaile batetetan. Harritua dago. Shock-ean dago. Baina filisteardarrak beti aurkitzen du bide posible bat.

Usinimage. 1987. Dialogorik Gabe. 10 min

Berlineko industrialdeetan dauden hiri paisai zein arkitekturen inguruko muntaia eta Ulrike Ottingerren Berlin trilogiako (Ticket of No Return, Freak Orlando eta Dorian Gray in the Mirror of the Yellow Press.) eszenak uztartzen dituen filma.

Manu Urangaren Gio Bat proiektuarekin kolaborazioan

<http://giobat.tumblr.com/>

Maiatzak bi, 19, behea (Bilbo)

Asteazkena, Martxoak 18. 20:00etan

Freak Orlando 1981

J.B.G.A. 126 min.

Akatsa, trakestasuna, botere grina, beldurra, erokeria, krudeltasuna eta egunerokotasuna bere baitan jasotzen duen “histoire du monde”a, hasieretatik gaur arte, “freakien” eskutik, bost ataletan banatzen den munduren antzerkiaren antzera kontatua.

L’ Occasione egitasmoarekin elkarlanean

<http://loccasionecon.tumblr.com/>

Ribera, 18 -3. (Bilbo)

Ostirala, Martxoak 27. 20:00etan

Unter Schnee (Under snow). 2011

J.B.G.A. 103 min.

Japoniako Echigo probintziako biztanleak elurrez estalia bizi dira urte erdia. Denborak beste abiadura bat du, askoz ere motelagoa, eta horrek eragina izango du eguneroko bizitzan ez ezik, erritualetan, ezkontza-ohituretan, festetan, janarian, kantuetan edo jolasetan ere, moldatu egin behar izan baitituzte horiek guztiak egoera gogor horretara eta probintziak duen edertasun natural horretara.

Trueba Zineak

Secundino Esnaola 2 (Donostia-San Sebastian)

Osteguna, apirilak 9, 21:30etan



eremuak

Esker bereziak, Plazandreak, Okela Sormen Lantegia, Merienda Zinema, Mikel Otxoteko, Bilboarte, Kaxilda, Espacio Puerta, Manu Uranga, Pablo Marte, Trueba Zineak, L’Occasione eta Bulegoa z/b

